

Helburua: Ipuin luze baten kontatzea, eta haren gogoan hartzeko, gertakarien hariari jarraitzen ikastea

«Elkarrekin istorio bat irakurriko dugu: **Galtzagorriak**.

Paragrafoz paragrafo istorioan sartuko zarete.

Paragrafo bat erakutsiko dizuet, isilean irakurriko duzue eta ondotik zati hori gordeko dut.

Zuetarik batek ulertu duena bere hitzez kontatuko du.

Ondoko paragrafoak, bat bestearen ondotik erakutsiko dizkizuet. Paragrafo bat irakurriko dugun aldi oroz, zuetarik batek ipuina hastapenetik kontatu beharko du.

Prest zarete?»


Behin bazen Kotte izeneko gizon bat Getarian bizi zena.

Bizi guzian zorte txarrekoa izan zen.

Azak landatzen zituelarik, harri erauntsi batek xehatzen zizkion. Neguko egur anitz biltzen baldin bazuen, negu horretan ez zen hotzik izaten.



Orduan, asperturik, bere zoritxarra gainditu nahian, sorgin batengana joan zen. Kotteren azalpena entzun eta, sorginak erran zion:
-Lagunduko zaitut. Baionan orratzontzi magikoak saltzen dituen dendari bat bada. Saltzailea aztia da. Zoaz eta erran iezaiozu nere partez, Galtzagorritz bete orratzontzi bat nahi duzula.



Erran eta egin. Gure gizona Baionara joan zen eta sorginak aipatu dendan, orratzontzi miresgarria erosi zuen. Dendariak hau erran zion:
-Galtzagorri ttipi horiek beti lanean izan behar dira. Bestenaz bazter guziak nahas litzakete.

Kotte etxera itzuli zen eta galtzagorriak lanean ezarri zituen.
-Alor honetan piperrak landa itzazue! -manatu zien Kottek.
Galtzagorriak alorrera joan ziren eta lana berehala bukatu zuten.

Orduan galdegin zioten Kotteri :

-Zer egin behar dugu orain?

-Teilatua konpon ezazue, belarra motz, ura ekar, kabalak bil, gasna egin, jantzi zaharrak petatxa!

Anitz lan agindu zien baina eguerdi gabe etxealdeko lan guziak eginak ziren eta galtzago berriz ere galdezka hasi ziren:

-Zer egin behar dugu orain? Zer egin behar dugu orain?

Kottek ez zakien zer mana eta galtzagorriak goizeko lanen desegiten hasi ziren.

Orduan Kotteri ideia bat bururatu zitzaion.

-Har ezazue pasadera hau, zoazte iturrira eta ekar ezazue ura!

Galtzagorriak laster abiatu ziren iturrira, baina behin eta berriz entseatuz ere, ura ziloetatik eskapatzen zen.

-Agindu duzun lana ezinezkoa da! Beraz hemendik betiko ihes egingen dugu! -erran zioten galtzagorriek haserre bizian.

Eta hala egin zuten, behin betiko desagertu ziren. Orduan, Kotte gaixoa, lehen bezala gelditu zen, lan guziak berak egin behar!

Hala ere, laster kontsolatu zen. Egia erran nahiago zuen bakarrik egon, galtzagorrien laguntza ukan baino...

Zergatik horrela irakurrarazten dizuet?

Zer ikasten duzue horrela irakurtzen duzuelarik?